

# HERNANI kronika

2003 urtea  
Apirilak 10  
Osteguna  
Alea: 741  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

ANTONIO ALVAREZ SOLIS - HITZALDIAK IRAKEKO GERRAREN INGURUAN

## "Pentsakera bakarra puskatzen ari da eta horren lekuko dira globalizazioaren eta gerraren kontrako mobilizazioak"

■ Irakeko gerraz gain, Euskal Herriko gatazkari buruz eta munduko ordenamenduari buruz hitz egin zuen Alvarez Solisek ■ Biteri lepo bete zen Madrilen bizi den asturiarraren hitzaldia entzutera.

ANTONIO Alvarez Solisek hitzaldia eman zuen astearteean Biterin, Udaleko Elkartasun Taldeak antolatuta. Irakeko gerrari buruzko hitzaldia ematera etorri zen Alvarez Solis, eta gerraz gain beste hainbat gauzetaz ere hitz egin zuen, Euskal Herriaz eta hemengo egoeraz bereziki.

### Txina setiatu nahia

Ameriketako Estatu Batuak Iraken sartzeko arazoi bat baino gehiago egon litzke, Alvarez Solisen iritziz: petroleo gosea, herrialde arabiarren kontrola eta Txina inguratu nahia aipatu zituen besteak beste. Solisek dionenez AEBk badakite Txina izango dutela hurrengo etsai nagusia eta preparatzan ari dira etorkizuneko gatazka. Erabiltzen diren beste zenbait hipotesi ere azaldu zituen, inbasioaren maila txikiagoko arrazoi: lurrade arabiarretako uraren kontrola, lurrade arabiarretako herri-aldeen ordenamenduari irtenbide berri bat ematea eta abar. Orain, estatu batuarrek daukaten zalantza omen da Petroleo industria edo armamentu industriari eman indarra. Alegia, daukaten artilleria guztia erabili edo diru eta boterea Irakeko petroleoa erabat kontrolatzeko erabili. Alvarez Solisek uste du guztiz honetan Bushek gutxi agintzen duela eta atzean enpresa eta multinazional haundiak daudela.

Saltzen dutena, ordea, ez da hori eta horregatik uste du Alvarez Solisek jendea kontra atera dela: "gezurra esanda sartu dira Iraken, baina, jendeak badaki hori



Antonio Alvarez Solis Biterin, astearteko hitzaldian.

eta erretxazoa sentitzen du". Garai gogorrak datozena eta gerra haundiak ikusiko ditugula esan zuen Alvarez Solisek, baina, hau beste zerbaitean hasiera izango dela, munduko organizazio berri baten abiapuntua: "tendentzia hau ez da geratuko, eta zerbaitek gertatuko da munduan, baina, alternatiba politikoa sortu behar dugu".

### Errepresioa AEBn

Madrilen bizi den kazetariak AEBn errepresio izugarria dagoela esan zuen, eta gehiago gerra garai honeitan: "Estatu Batuetan kasetari, jende famatu eta abarrek presio izugarria jasaten dute pentsakera bakar horre-

tatik ez ateratzeko, eta Espainian ere horixe kopiatu dute. Madrilen zenbait kazetari bota egin gaituzte desberdin pentsatzeagatik". Maila horretan Euskal Herrian askatasun haundiagoa dagoela esan zuen Alvarez Solisek eta jendeak beste kontzientzia bat duela: "pentsakera bakarraren garaia hauetan Europan ez dago Euskal Herriaren kontzientzia duen herririk eta horregatik gustatzen zait eta defendatzen dut Euskal Herria". Kontzientzia eta helburu hauek medio Madrilgo agintarietik eta komunikabideek Euskal Herriaren kontra egiten dutela eta beren politika bakarra bihurtu dela ere esan zuen. □

### ESANDA BEZALA

■ "Estatu Batuak hiru helburu dituzte gerra honetan: eurotan saltzen ari den Irakeko petroleoa dolarretan saltzea, lurrade arabiarretako gasa eta petroleoa bere egitea, eta Txina siatzea, bai baitakite hurrengo gatazka gogorra hortik etorriko zaiela".

■ "Mundu arabiarak bat egin du gerra honen aurrean, nahiz elkarrekin liskar haundiak izan".

■ "Estatu Batuak krisi batean sartzen ari dira eta bere desegitea zenbateraino organizatzeko gai izango diren, hori da galdera".

■ "Iraultza baten atarian gaudela uste dut, eta berriz ere sozilismoruntz goazela. Lurrik, osasunbideak... denona izatera bueltatu behar du. Baina, aurretik gerra garrantzitsuak ikusiko ditugu eta sufriztea tokatuko da".

■ "Nire galdera da: Ameriketako Estatu Batuak ez al dira gehiegi jaten ari dijestio ona egiteko?"

■ "Ekonomia errealkak indarra galdu du eta gaurko sistema kapitalistan ekonomia birtualak du indarra".

■ "Euskal Herrian libertaderik ez dagoela diote askok, baina, Madriden gutxiago dago. Han pentsakera bakarra dago eta pixka bat ateratzen garenok egurra jasotzen dugu".

## 'Villa Ave Maria' eta 'Politena' parkeak zabalik larunbatean

UDALETXEAK Ave Maria eta Politena parkeak zabalduko ditu datorren larunbatean, eta parkearen inguruko informazioa eta aurrerako proiektuen berri emanago du. Latsunbeko Ave Maria parkea 11:00etan irekiko dute eta Floridak politena parkea eguerdiko 12:30etan. Bixita gidatua ordu hauetan izango da, baina, parkeak irekita egongo dira arratsaldeko 17:00ak arte. □

### HIRIGINTZA BATZORDEA

#### Atseginddegia eta Txantilla

TXANTXILLAKO konbenio urbanistikoa eta Atsegindegiko parkeko izango dira gaur Hirigintza Batzordeko puntu nagusiak. Batzordea 19:00etan da.

### 3/4 PLATAFORMA

#### Kontzentrazioa gaur

KONDAREN hiru laurdenak beteak dituzten preso hernaniarrak askatzea eskatzeko kontzentrazioa deitu du 3/4 Plataformak. Kontzentrazioa, gaur da, 19:00etan Plaza Berrian. □

### MENDIRIZ MENDI

#### Urbasara ibilaldia

IGANDERAKO mendi irteera antolatu du Mendiriz Mendi el-karteak gaztetxoentzat. Urbasako portutik Bargagain mendira joango dira. Irteera goizeko 08:00etan izango da Atsegindegitik.

Izena emateko gaur edo bihar, Mendiriz Mendi, 20:00etatik 21:00etara. Prezioak: gaztetxoek 2 euro eta helduek 4 euro. □

### ZINE KLUBA BITERIN

#### 'El Efecto Iguazu'gaur

ZINE Klubaren barruan, *'El Efecto Iguazu'* pelikula botako dute, gaur Biterin, gaueko 22:00etan. □

OIALUME ZAR  
SAGARDOTEGIA

Asteartetik larunbatera zabalik.  
943 55 29 38  
OIALUME AZOIA

ZINGI-ZANGA  
Jatetxea  
Eguneko menuak  
Asteburuan afariak  
Florida 54  
Tel: 943 33 03 97  
Urbia kalea 6 - Tezkerra  
URBIETA  
FISIOTERAPIA  
Tel.: 943 55 74 58 / 656 77 30 10  
urbietafisioterapia@hotmail.com

Arrandegia  
Mari Fe  
Nagusia 36  
943 550 489  
Orkola 17  
943 552 741  
HERNANI

CALZARRETAK  
ZALDIA  
Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak  
GAUR 16:00ETATIK AURERA  
ERREMONTTE JAIALDIA:  
1. partidua: Uterga-Lander / Larrea-Gaztelu  
2. partidua: Ezkurra-Lizaso / Agirresarobe-Altuna I - Etxabe  
3. partidua: Zeberio II - J.Etxeberria / Iñigo-Iriarte  
4. partidua: Sarasua-Aizpuruall / Zeberiol - Urko



San Markos mankomunitateak prentsurreko eman zuen atzo.

## San Markos Mankomunitatea herrietako zaborraren % 25 berziklatzera iritsi da

■ Mankomunitateak adierazi duenez, 2016rako %41era iristea da helburua.

SAN Markos Mankomunitateak herriarrok sortzen dugun zaborraren % 25 berziklatzea lortu zuen 2002an. Mankomunitateak prentsurreko eman zuen atzo 2002ko balantzea egiteko eta Xabier Landa lehendakariak datu hori azpimarratu zuen, besteak beste.

San Markos Mankomunitatea osatzen duten 10 herrietan, pertsona bakoitzak 472 kilo zabor sortzen ditu, batez beste, eta horietatik 118 kilo berziklatu zituen 2002an San Markosek, 2001ean baino % 18 gehiago. Atzeria begira jarrita, 1995an herrietako zabo-

rraren % 5 berziklatzen zuen, eta zortzi urtean % 25era iritsi bida, Mankomunitatearen helburua da 2016rako zaborraren % 41 berziklatzea.

San Markosek beste zenbait datu ere eman zituen atzoko prentsurrekoan. Adibidez, 30.408 lagunek erabili zuten erabilitako olioak eta zabor arriskutsuak biltzeko zerbitzua. 31.954 litro olio bildu ziren eta 14 tonelada hondakin arriskutsu. Ontziak sailatzeko Urnietan jarri zuten planta berrian, berriz, 2.210 tonela zabor jaso dira berziklatzeko. □

### Bilketa sistema optimizatu

Aurrera begira, San Markosen apustua zabor bilketa sistema optimizatzea da, geroz eta gehiago berziklatzeko. Horri begira, aurten iniziatiiba berri bat jarri du martxan San Markosek eta ahalegin berezia egingo du zabor gehiena sortzen duten establezimendu eta egoitza haundietan bilketa sistemak hobetzeko. Honela, San Markosek Mankomunitateko 186 hotel, ikastetxeetako jangela, ospital eta abar apartatu, eta esperientzia pilotuak jarri ditu martxan horietako 40 puntuatan. □



Maite Zabalak irekiko du denda berria Txirrita kalean.

## 'Ttilin Ttolon' belar-denda berria irekiko dute gaur Txirrita kalean

■ Belar dendaz gain kontsulta medikua, naturista, dietista, estetika produktu naturalak eta abar ditu.

BELAR denda berria izango da gaurtik aurrera herrian, Txirrita kalean. *Ttilin Ttolon*-en belarrez gain, ogi integrala, oinetako ortopedikoak, estetika produktu naturalak, kontsulta medikua, kontsulta

naturista eta dietista eta abar izango dira. Egunotan azken ukituak emanda, gaur arratsaldeko 18:00etan inauguruatuko dute, luntx eta guzti. Bihartik aurrera irekita egongo da. □

## ■ HITZ BITAN

### ✓ BOLA

**Antonio Miner lehenengo Aian, 48 brilarekin.** Asteburuan erregularidadeko tiraldia izan da Aian eta Antonio Miner Ur-Miako bolariak irabazi du, 48 brila botata. Joxe Mari Zelarain Elur-Txorikoa 4garren izan da 45ekin. Sailkapenean German Gereñu legazpiarra dijoa lehenengo 392 brilarekin, Jose Lizaso urnietarra bigarren, 387 brilarekin eta Ibon Miner ereñotzuarra hirugarren, 386 brilarekin. Hurrengo hernaniarrak dira: Jose Ugalde 5garren, 382 brilarekin eta Antonio Miner eta Miguel Burugain 6garren, 380 brilarekin. Azkenengo tiraldia igande honetan da Lasarten eta bertan erabakiko da Gipuzkoako erregularitateko txapelduna, eta Euskal Herriko txapelketara zein klasifikatuko diren ere bai.

### ✓ SASKIBALOA

**Entrenamentuak, 89-90ean jaiotakoentzat.** Apirilaren 14an, asteleheneta, teknifikazio entrenamentuak izango dira 1989 eta 90ean jaiotako hernaniarrentzat, kirolegian. Klausa goizeko 10:00etatik 11:30etara da. Klase hauen helburua da Hernanin saskibaloia indartzea eta datorren urterako ekipoa ateratzeko jokalari kadeteak bilatzea. Interesatuak kirolegira bertara azaldu, apirilaren 14an, goizeko 09:45etan. Informazio gehiago, 554513 telefonoan. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

■ Taxiak:	943 550093
■ Udalzaingoa:	943 333288
■ DYA:	943 464622
■ Autobusak:	943 556662
■ Anbulatorioa:	943 006666
■ Jokalari anonimoak:	943 331103

### + FARMAZIAK

■ Egunez:	Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
■ Gauez:	Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802

## IRAGARKI MERKEAK

Garajea salgai Urbia kalean: 943 55 20 81

Etxebizitza eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (segurtasuna, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: 627 51 97 76

Haurra zaintzeko neska euskalduna behar dugu, Ordutegia: Astelehenetik larubatera 8:00etatik 16:00etara. Deitu: 943 55 20 98 (20:00etatik 21:00etara)

Pertsona bat behar da jatetxe bateko sukaldean laguntzeko. Kotxea edo motoa behar ditu. Interesatuek deitu: 943 55 64 81

Arotz profesionalak etxekek lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar badezu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)

## ESKOLA KIROLA

## ASTEBURUKO EMAITZAK



Eskola kirolean saskibaloit partiduak izan ziren protagonista nagusia asteburuan.

Futbola	Taldeak	Non	Emaitzak
Alebinak	Unum ea A - Elizabio A	Zubipe	3-9
Alebinak	Inm aculada - Langile B	Zubipe	2-2
Alebinak	Unum ea B - Langile C	Zubipe	11-1
Alebinak	Langile - Elizabio B	Zubipe	1-7

Saskibaloia	Taldeak	Non	Emaitzak
Benjamínak	4E Izatxo A - Unum ea	Kio Hegia	1-3
Benjamínak	4Langile A - Langile B	Kio Hegia	1-2
Benjamínak	4E Izatxo B - Inm aculada	Kio Hegia	0-4
Benjamínak	3E Izatxo A - Unum ea	Kio Hegia	1-3
Benjamínak	3Langile B - E Izatxo B	Kio Hegia	2-1
Benjamínak	3Langile A - Langile C	Kio Hegia	1-3
infantilak	Langile - St. Lluján B	Donostia	33-37